

Bilbo-Basurtu ESIko 2024ko Zerbitzu eta Konpromisoen Karta

Osakidetzako Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratua (Bilbo-Basurtu ESI) Basurtuko Unibertsitate Ospitaleak eta ospitalez kanpoko 28 osasun-zentro osatzen dute: Lehen Mailako Arretako Unitateak (LMAUak), Ambulatorioak, Etengabeko Arretako Guneak (EAG) eta Saralegiko Haur eta Gazteen Arreta Zentroa (Osasun Mentala). Erakunde sanitario publiko honek ahalik eta zerbitzurik onena eman behar die bere bezero eta erabiltzaileei.

Gure ESIaren zerbitzu-zorroa UNE 93200:2008 Arauaren irizpideei jarraiturik egin da, eta helburu du informazio proaktiboa eta publikoa ematea herritarrei, bezero/erabiltzaileei eta interesatutako erakundeei eskaintzen ditugun zerbitzuez, zerbitzu horien kalitate-konpromisoez, eta zerbitzu horien jasotzaileen eskubide eta betebeharez.

Agerian jarri nahi dugu nolako konpromisoak hartzen ditugun gure Zerbitzu Zorroan eskaini eta erabiltzaileei ematen dizkiegun zerbitzu jakin batzuei dagokienez, gure jarduerak gero eta kalitate handiagoa izan dezan eta gure Interes Taldeen eskariei erantzun diezaien.

Konpromiso horiek behar bezala finkatu daitezten, eurei lotutako emaitzen berri emango dugu urtero, [Osakidetzaren web-orriaren bidez](#). Konpromisoetakoren batean planteatutako balio objektiboa lortuko ez balitz, Bilbao Basurto ESIak Neurri Zuzentzaileen Plan bat ezarri eta dokumentatuko ditu, egoera hori aztertu eta konpontzeko neurriak hartzeko

Bilbo-Basurtuko ESlaren MISIOA, IKUSPEGIA eta BALIOAK

Bilbo-Basurtuko ESlaren 2022-2025 Plan Estrategikoa egin ondoren, honela definitu genituen programa-printzipio horiek:

XEDEA: Zertarako eratu gara eta zein da gure helburua erakunde gisa?

Osakidetzako erakunde sanitario publikoa gara, eta lehen mailako arretako eta ospitaleko arretako zerbitzu integratuak eskaintzen ditugu, osasuna sustatzeko eta zaintzeko, bai eta gaixotasuna prebenitzeko, hobetzeko eta sendatzeko ere. Arretaren kalitatea, ikerketarekiko eta irakaskuntzarekiko konpromisoa eta profesional bikainen prestakuntza dira gure bereizgarri nagusiak.

IKUSPEGIA: Zer irudi izan nahi dugu gure bezero eta bestelako Interes Taldeen aurrean?

Herritarrengan sortzen duen konfiantzagatik aitortzea izan nahi dugu, eremu hauetan erreferente baita:

- *Gure asistentziaren humanizazioa, segurtasuna eta pertsonalizazioa*
- *Emaitzak hobetzea osasunari dagokionez*
- *Gure zerbitzuen irisgarritasuna, arintasuna eta eraginkortasuna*
- *Osasun komunitarioaren eta eremu soziosanitarioaren garapena*

Gure langileen garapen profesionala eta pertsonala, bai eta azpiegitura modernoagoak eta seguruagoak hornitzea ere, erronka horiek lortzeko funtsezko bi elementu izanik.

BALIOAK: Zer jokabide izan behar dute gure profesionalak?

- *Talde-lana*
- *Enpatia*
- *Profesionaltasuna*
- *Zerbitzuaren kalitatea*
- *Errespetua*
- *Gizatasuna*
- *Eraginkortasuna.*

GURE ZERBITZU ZORROA

Gure bezeroei ematen dizkiegun osasun-zerbitzuak Bilbao – Basurto ESko zerbitzu-zorroan azaltzen dira. Zorro hori urtero berraztertu, berretsi eta, hala badagokio, hobetu egiten da, Programa Kontratuak* Osasun Sailarekin sinatzearekin bat: Bertan zehazten da zer konpromiso hartzen duen ESak bere arretapeko herritarrei zerbitzuak emateari buruz eta zerbitzu horiek izan beharreko kalitate-mailaz. Horren truke, behar duen finantzazioa emango dio Osasun Sailak. Ondoren, ebaluazio-prozesu baten bidez, aurretik itundutako konpromisoen betetze-maila aztertu eta egiaztatzen da, eta aurrekontua doitu egiten da, beharrezkoa izanez gero.

** Kontratu Programak deskribatzen ditu ESaren zerbitzu-zorroa, zentroak eta zerbitzuak, atxikitako biztanleria, bai eta beste alderdi batzuk ere, kasu, ESla erreferentziala den espezialitate medikoak, baita beste erkidego batzuetako biztanleentzat ere.*

Hauxe da ESak eskaintzen duen Zerbitzu Zorroa (modu laburrean azalduta):

Lehen Mailako Arretako Unitateek (LMAUak) osasun-zentroen sarean eta Etengabeko Arretako Guneek (EAG) emandako osasun-zerbitzuak

- Gaixo akutu eta kronikoen asistentzia eta jarraipena, hala zentroan nola etxean.
- Osasunerako prebentzioa, sustapena eta heziketa.
- Arreta haurdunaldian, erditzeko prestaketa eta arreta erditu ondoren.
- Aho-hortzetako osasuna
- Arreta ematea behar sanitario urgente edo atzeraezinezkoen, hala zentroan nola etxean.
- Alta osteko erizaintzako zainketak, zentroan eta etxean

Arreta Hospitaleko egituraren bidez ematen diren zerbitzu sanitarioak

- Hainbat espezialitate medikotako kanpo-kontsultak, bai Basurtuko Unibertsitate Ospitalean bai zentro anbulatorioen sarearen bidez.
- Ohiko ospitalizazioa hainbat espezialitate medikotan (679 ohe guztira).
- Ospitaleko larrialdietako zerbitzua
- Eguneko ospitalizazioa
- Etxeko ospitalizazioa Bilbo eta Alonsotegi udalerrietarako.
- Prozedura diagnostiko eta terapeutikoak, bai medikoak bai kirurgikoak, hainbat zerbitzu orokor klinikotan.
- Erreferentziako zerbitzu klinikoak hainbat espezialitatetan, beste lurralde batzuetako biztanle helduak eta haurrak artatzeko (gure erreferentziako biztanleez gain), baita tratamendu eta azterlanei dagokienez ere.
- Errehabilitazio Zerbitzuak
- Buru-osasunaren arreta

Bezereen Arretarako Eremuko zerbitzuak

- Harrera eta informazioa
- Zidak jartzea
- Iradokizun, kexa eta erreklamazioei arreta ematea
- Beste izapide administratibo batzuk

Gizarte Laguntza

- Esku-hartze sozial prebentiboa eta zuzentzailea arrisku-egoeretan.
- Koordinazio soziosanitarioa

Gradu aurreko eta gradu osteko irakaskuntza hainbat espezialitate sanitariotan

- Erizaintzako Unibertsitate Eskola
- Medikuntza eta Odontologiako Fakultatea
- Farmazia Fakultatea
- Lanbide Heziketako Eskolak

Profesionalen prestakuntza hainbat espezialitatetan:

- Medikuntza
- Farmazia
- Psikologia
- Erizaintza
- Emaginak

Ikerkuntza kliniko-epidemiologikoa

NOLA LAGUNDU AHAL DIGUZU GURE ZERBITZUAK HOBETZEN?

Urtero egiten ditugun gogobetetze-inkesten bidez. Horien emaitza garrantzitsuenak txertatuta daude Erantzukizun Sozial Korporatiboaren memorietan (gure webean eskuragarri). Horrez gain, badaude beste era batzuk parte hartzeko: antolatu daitezkeen talde fokalak, gure zorroko prozesu edo zerbitzuren baten gainean zer iritzi duzun jakiteko; gure profesionalak antolatutako talde-topaketak...

Era berean, eta modu iraunkorren, kalitate-inkestari erantzunez parte har dezakezu, ESlaren webgunean dagoen “zure iritzia ezagutu nahi dugu” atalaren bidez, eskuragarri [hemen](#)

Eta, jakina, kexa, erreklamazio, iradokizun eta esker-emateen bidez.

Zure erreklamazioa, iradokizuna edo esker-ematea hemen aurkeztu dezakezu:

- Osasun-zentro guztietako Bezeroen Arretarako Eremuetan.
- Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzuetan, bai Kale Nagusiko 62.eko Zentro Administratiboan, eta bai Ospitalean.
- Gure [web-orrian](#):
- Osakidetzako edozein zentro sanitariotan
- Edozein organismo ofizialetan, legeek xedatu bezala.

Erantzuteko epea 30 egun naturalekoa da, gure instalazioetan erregistratzen denetik aurrera.

GURE KARTAKO KONPROMISOAK

Ezagutzera ematen dugu jarraian gure Zerbitzu Zorroko zein zerbitzuren gainean hartzen dituen Bilbao Basurto ESlak kalitateko konpromiso publikoak

Kartako konpromisoa	Erreferentziak o zerbitzuak	Adierazleak	Informazioaren maiztasuna
Konpromisoa hartzen dugu gure lehen mailako arretako unitateek (LMU) urtean talde-jarduera bat, gutxienez, egin dezaten; jarduera horrek lotura zuzena izan beharko du osasun-heziketa eta -sustapenarekin eta gaixotasunaren prebentzioarekin.	Osasunerako prebentzioa, sustapena eta heziketa.	Urtean talde-jarduera bat gutxienez egiten duten LMUen %	Urteko neurketa
Bermatzen dugu gure emaginek ama-haurrentzako arreta emango dutela 8:00etatik 20:00etara, astelehenetik ostiralera, Osakidetza Bilbo-Basurto ESiko osasun-zentroetakoren batean.	Arreta haurdunaldian, erditzeko prestaketa eta arreta erditu ondoren.	10.000 biztanleko erreklamazio-tasa, nahi den orduan arreta ez jasotzeagatik	Urteko neurketa
Arreta kalitatekoa eta segurua bermatzen dugu erditzeari eta jaioberriari dagokionez, maila asistentzial ezberdinetan parte hartzen duten profesionalen jarduera oso protokolizatu eta koordinatuen bidez.		< 30 egunetan berringresua egiten duten erdiberrien %	
		Episiotomien % erditze eutozikoetan (normaletan)	
Arreta kalitatekoa eta segurua bermatzen dugu erditzeari eta jaioberriari dagokionez, maila asistentzial ezberdinetan parte hartzen duten profesionalen jarduera oso protokolizatu eta koordinatuen bidez.	Arreta haurdunaldian, erditzeko prestaketa eta arreta erditu ondoren.	Jaioberrien erikortasuna ingresatu gabeko haurren kasuan	Urteko neurketa
Konpromisoa hartzen dugu erabiltzaileen alden eta osasun-txartel indibidualaren aldaketen %100ean familia-medikuaren aldetik osasun-zerbitzua euskeraz jasotzeko aukera eskaintzeko.	Beste izapide administratibo batzuk	Arreta mediku euskaldun batek ez emateagatik egindako erreklamazio-kopurua	Lauhileko neurketa
Konpromisoa hartzen dugu gure jardueren jasangarritasunarekiko apustuarekin jarraitzeko, erabiltzaile bakoitzeko iazko kontsumo elektrikoa murriztuta edo mantenduta Ospitalez kanpoko gure zentroetan.	Zeharkakoa, Erantzukizun Sozial Korporatiboa	Kontsumo elektrikoa	Urteko neurketa
Konpromisoa hartzen dugu gure jardueren jasangarritasunarekiko apustuarekin jarraitzeko, hondakinen bereizketa hobetu eta "hondakin orokor" gisa jasotako kantitatea murriztuta Ospitalez kanpoko gure zentroetan.		"Zabor orokorraren" bolumenta	
Konpromisoa hartzen dugu bezero eta erabiltzaileek ESlari lotuta aurkeztutako erreklamazioen %90, gutxienez, idatziz erantzuteko 25 egun naturaleko epean edo epe laburragoan, gure edozein zentro edo zerbitzutan erregistratzen direnetik zenbatuta.	Irakokizun, kexa eta erreklamazioei arreta ematea	25 eguneko epean edo lehenago erantzundako erreklamazioen %	Lauhileko neurketa
Konpromisoa hartzen dugu gure Erradiodiagnostikoko zerbitzuek azkar erantzuteko, Ospitalean ingresatutako pazienteei egin beharreko miaketei dagokienez (batez besteko atzerapena <=24 ordu).	Prozedura diagnostiko eta terapeutikoak	Batez besteko atzerapena, ospitalizatutako pazienteentzat miaketa eskatu eta egin bitartean	Urteko neurketa
Konpromisoa hartzen dugu zerbitzu segurua eta kalitatekoa emateko ospitale-arreta etxean jaso dezaketen pazienteei, eta ahalegina egingo dugu Ospitalean berriro ingresatzea ekarriko luketen birgaixotzeak saihesteko (programatu gabeko berringresuen tasa <% 6).	Etxeko Ospitalizazioa	Programatu gabeko berringresuen %	Urteko neurketa
Konpromisoa hartzen dugu zerbitzu segurua eta bizkorra emateko solairuan ingresatu gabe ospitale-arreta jaso dezaketen pazienteei, eta ahalegina egingo dugu behar diren diagnostikoak eta tratamenduak koordinatzen eta bizkor bideratzen (batez besteko egonaldia <=160 minutu).	Eguneko ospitalizazioa	Eguneko Ospitaleko unitatean egindako batez besteko egonaldi globala (minutuak)	Urteko neurketa
Konpromisoa hartzen dugu gaixotasunaz informazio argia eta zehatza emateko, gure zerbitzuei buruzko gogobetetze globala gutxienez 10etik 7,5 puntukoa izanik (ospitalizazio-solairuetan, kanpo-kontsultetan, larrialdietan eta osasun-	Konpromisoa informazioarekin, tratuarekin eta gure arretaren	Gogobetetze-adierazleak (urtean behingo / bi urtean behingo inkestak), 4 arlo handi horien arabera segmentatutakoak	Urtean behingo / bi urtean behingo neurketa

Kartako konpromisoa	Erreferentziak o zerbitzuak	Adierazleak	Informazioaren maiztasuna
zentroetan)	kalitatearekin		
Konpromisoa hartzen dugu gure erabiltzaileak tratu egoki eta profesionalarekin artatzeko, gure zerbitzuei buruzko gogobetetze globala gutxienez 10etik 7,5 puntukoa izanik (ospitalizazio-solairuetan, kanpo-kontsultetan, larrialdietan eta osasun-zentroetan)			
Konpromisoa hartzen dugu gure erabiltzaileei kalitateko arreta sanitarioa emateko, gure zerbitzuei buruzko gogobetetze globala gutxienez 10etik 7,5 puntukoa izanik (ospitalizazio-solairuetan, kanpo-kontsultetan, larrialdietan eta osasun-zentroetan)			
Ebakuntza kirurgikoa egiteko itxaronaldiak maila egokietan mantentzeko konpromisoa hartzen dugu, prozesu klinikoaren tipologia kontuan hartuta (Prozesu onkologikoetako kirurgiako itxarote-zerrenda (KIZ): 75% paziente programatuak <= 28 egunetan, eta Kirurgiako itxarote-zerrenda (KIZ) GLOBALA: 75% paziente programatuak <= 150 egunetan)	Ospitaleratzea/Kirurgia Nagusi Anbulatorioa	Prozesu onkologikoetako kirurgiako itxarote-zerrenda (KIZ): 75% paziente programatuak <= 28 egunetan (ebaketa-puntuen arabera) Kirurgiako itxarote-zerrenda (KIZ) GLOBALA: 75% paziente programatuak <= 150 egunetan (ebaketa-puntuen arabera)	urtean behin
Konpromisoa hartzen dugu ingresatuta ditugun pazienteen mina egunero baloratzeko (balorazio horren % 80 erregistratuko da).	Ospitaleratzea	Ingresu-aldian mina baloratu zaien pazienteen %	urtean behin
Konpromisoa hartzen dugu kalitateko arreta sanitarioa emateko, indar berezia jarrita infekzio nosokomialak prebenitzen eta ebitatzen (infekzio nosokomialen %, Estatuko batez bestekotik behera; EPINE azterlana).	Zeharkakoa, Segurtasun klinikoa	Infekzio nosokomialen % (EPINE azterlana)	urtean behin
Osasun Prestakuntza Espezializatuko gure mediku egoiliarren prestakuntzarekin konprometitzen gara, prestakuntza programen eta kalitatezko praktika klinikoan bidez, 5 puntutik gutxienez 3,5 puntuko gogobetetzea lortuta, bai maila globalean Zerbitzu Klinikorekin, bai jasotako prestakuntzarekin	Zeharkakoa, Erantzukizun Sozial Korporatiboa	Egoiliar-aldia osatu duen zerbitzuari buruzko gogobetetze globala (1-5 p. inkesta-eskala)	urtean behin
		Jasotako prestakuntzaren gogobetetze globala (1-5 p. inkesta-eskala)	urtean behin
Konpromisoa hartzen dugu gure etorkizuneko erizainen prestakuntzarekin, etengabe gainbegiratzuz eta lagunduz, bai eta prestakuntza-programen eta kalitatezko praktika klinikoan bitartez ere, 5 puntutik gutxienez 3,5eko gogobetetze-maila lortuta, bai jasotako ikuskapen globalari, bai egindako ikaskuntza-jarduerei dagokienez	Zeharkakoa, Erantzukizun Sozial Korporatiboa	Jasotako ikuskapenaren ikasleen gogobetetze orokorra (1-5 p. inkesta-eskala)	urtean behin
		Egindako ikaskuntza-jardueretan jakintzagaiak integratzeari buruz ikasleek duten gogobetetzea (1-5 p. inkesta-eskala)	urtean behin
Gure profesionalek I+G+b jarduerak egin ditzaten bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu, gizarte-, antolamendu- eta pertsona-aldaketa eta -hazkunderako eragile gisa, eta ikertzaile, ikerketa-proiektu eta saiakuntza klinikoan kopurua ez da aurreko urtean egindakoen kopuru osoaren % 90 baino txikiagoa izango	Zeharkakoa, Erantzukizun Sozial Korporatiboa	Ikertzaile aktiboaren kop.	urtean behin
		Ikerketa-proiektu eta saiakuntza kliniko aktiboaren kop.	urtean behin
Konpromisoa hartzen dugu arlo soziosanitarioan laguntza arin eta koordinatua emateko, inguruko erakunde eta entitateekin lankidetzan, eta Urteko Programa Kontratuaren Ebaluazio-taldeak (kanpokoak) egindako balorazio orokorra gutxienez % 80koa izatea lortuko dugu	Zeharkakoa, Erantzukizun Sozial Korporatiboa	Kanpoko Ebaluazio-taldearen balorazio orokorra Programa Kontratuko "Koordinazio Soziosanitarioa" atalean	urtean behin
Ospitaleratutako pazienteentzako kalitatezko ostalaritza-baldintzak mantentzeko konpromisoa hartzen dugu, logelari eta instalazioen erosotasunari eta garbitasunari, bai eta zerbitzatutako menuari buruzko gogobetetzea, gutxienez 10 puntutik 7,5 puntuko asebetetze-mailarekin	Ospitaleratzea	Logelaren eta instalazioen erosotasunari buruzko gogobetetzea (0-10 p.)	urtean behin
	Ospitaleratzea	Zerbitzatutako menuari buruzko gogobetetzea (0-10 p.)	urtean behin
	Ospitaleratzea	Gelaren eta instalazioen garbiketari buruzko gogobetetzea (0-10 p.)	urtean behin

Kartako konpromisoa	Erreferentziak o zerbitzuak	Adierazleak	Informazioaren maiztasuna
Ospitaleratutako pazienteen errekupeazioa errazteko ingurune egokia mantentzeko konpromisoa hartzen dugu, gaueko atsedenen errespetuari dagokionez, gutxienez 10etik 7,5 puntuko asebetetze-mailarekin	Ospitaleratzea	Gaueko atsedenen errespetuari buruzko gogobetetzea (0-10 p.)	urtean behin
Genero-indarkeriaren prebentzioarekin, detekzio goiztiarrekin eta arretarekin konprometituta gaude, bai gure profesionalak prestatzeko eta sentsibilizatzeko jardueren bidez gai hauei buruz (gutxienez 12 jarduera urtean), bai biktimei laguntzeko jardueren bidez (urtean 200 kasu baino gehiago detektatu dira. Informazio iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Indarkeria matxistaren behatokia).	Zeharkakoa: gure arreta zerbitzu guztientan aplikagarria	Gure profesionalentzako prestakuntza- eta/edo sentsibilizazio-jardueren kopurua gai hauei buruz	urtean behin
		Antzemandako kasuen kopurua	urtean behin

ERABILTZAIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK eta HORRI LOTUTAKO ARAUDIA

Herritarren eskubideak eta betebeharrak

- [Eskubideen eta betebeharren karta](#)
- [Hizkuntza-eskubideak](#)
- [Erreferentziako legeak](#)

BILBAO-BASURTO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA (ESI)

1. BASURTUKO UNIBERTSITATE OSPITALEA. ARRETA SANITARIOA: URTEKO 365 EGUNETAN, EGUNEKO 24 ORDUETAN

Montevideo etorbidea, 18, 48013 Bilbo
 Tel.: 94 400 6000

2. OSPITALEZ KANPOKO OSASUN-ZENTROK OSATZEN DUTEN SAREA (ARRETA SANITARIOA ASTELEHENETIK OSTIRALERA, 8:00etatik 20:00etara):

OSASUN ZENTROA	HELBIDEA	TELEFONOA
ALONSOTEGIKO OSASUN ZENTROA *	MADINABEITIA PLAZA,2 (Alonsotegi)	94.498.00.01
ALTAMIRAKO OSASUN ZENTROA *	ALTAMIRA, 11	94.427.44.11
ARANGOITIKO OSASUN ZENTROA *	BERRIZ BIDEA, 50	94.474.62.02
BASURTUKO OSASUN ZENTROA	IPARRALDEKO LORATEGIAK, 1	94 600,68,70
BEGOÑAKO OSASUN ZENTROA BEGOÑA ANBULATORIOA	BEGOÑAKO ANDRA MARI K., 32	94 400.76.20
BOLUETA SAGARMINAGAKO OSASUN-ZENTROA	SAGARMINAGA K., 56	94 411.75.26
ETXANIZ SUHILTZAILEA OSASUN-ZENTROA	ETXANIZ SUHILTZAILEAREN PLAZA, 1	94 600 68,90
J.S.BURUAGA OSASUN-ZENTROA J.S BURUAGA ANBULATORIOA	ZABALDUNE PLAZA, Z/G	94 600.69.70
ALDE ZAHARREKO OSASUN ZENTROA	ERRONDA KALEA, 6	94,400,74,45
DEUSTUKO OSASUN ZENTROA DEUSTUKO ANBULATORIOA	LUIS POWER K., 18	94 600 66 66
KARMELO OSASUN-ZENTROA	PADRE ESTEBAN PERNET K., 6	94 400.74.30
GAZTELEKUKO OSASUN ZENTROA	BIANAKO PRINTZEA, 5	94.400.75.90
INDAUTXUKO OSASUN ZENTROA AREILZA DK. ANBULATORIOA	AREILZA DK. K., 12	94 600 68 00
IRALAKO OSASUN ZENTROA**	UGALDE K., 7	94.600.67.20
MESEDEETAKO OSASUN ZENTROA*	LUIS IRAURRIZAGA, 1	94 416.14.88
MIRIBILLAKO OSASUN-ZENTROA	SAN LUIS MEATEGIAREN KALEA, 16	94 488.15.00
LARREAGABURUKO OSASUN ZENTROA:	INDALECIO PRIETO K., 11	94.400.77.60
ABUSUKO OSASUN ZENTROA	IBAIALDE, Z/G	94 400,74,35
OTXARKOAGAKO OSASUN-ZENTROA	ZIZERUENE, 1	94 400.76.80
ERREKALDEKO OSASUN-ZENTROA ERREKALDEKO ANBULATORIOA	LARRASKITU ERREP., 2	94 600 67 00
SAN ADRIANGO OSASUN-ZENTROA:	JUAN DE GARAY, 51-53	94 400,74,25
SAN INAZIOKO OSASUN-ZENTROA:	LARRAKOTORREA, 9	94 600.66.90
SARALEGIKO HAUR ETA GAZTEEN ZENTROA*	SARALEGI PLAZA, 8 behea	94 488 15 16
SANTUTXU-SOLOKOETXEKO OSASUN-ZENTROA SANTUTXU-SOLOKOETXEKO ANBULATORIOA	SORKUNDE, 3	94 400.75.00
TXURDINAGAKO OSASUN-ZENTROA	TXOMIN GARAT, 16	94 400.76.00
TXURDINAGAKO ANBULATORIOA	GABRIEL ARESTI, 11	94 400.76. 50
ZORROTZAKO OSASUN-ZENTROA	BASURTU-KASTREXANA ERREP., 20-22	94 600,68,80
ZURBARANGO OSASUN-ZENTROA	ZUMALAKARREGI ETORB., 99	94 400.74,40

(*ORDUTEGIA: 8:00etatik 15:00etara)

(**ORDUTEGIA: 8:00etatik 17:00etara)

IRISTEKO MODUA ETA HURBIL DAUDEN GARRAIOBIDEAK. OSASUN ZENTROAK

OSASUN ZENTROA / ANBULATEGIA	Iristeko Modua		Hurbil dauden garraioak *						
	A	B	1	2	3	4	5	6	7
Alonsotegi	X	X	X				X		X
Altamira	X	X		X					
Arangoiti	X	X		X					
Basurto	X	X	X	X	X	X	X		X
Begoña	X	X	X	X	X				X
Bolueta	X	X	X	X	X				
Bombero Etxaniz	X	X	X	X	X			X	X
Casco Viejo	X	X	X	X	X	X	X	X	X
Deusto	X	X	X	X	X			X	X
Gazteleku	X	X		X	x				
Indautxu	X	X	X	X	X			X	X
Irala	X	X		X				X	X
Javier Saenz de Buruaga	X	X	X	X	X			X	X
Karmelo-Santutxu	X	X	X	X	X			X	X
La Merced	X	X		X		X	X	X	
La Peña	X	X		X			X		X
Mina del Morro	X	X		X	X				X
Miribilla	X	X		X			X		X
Otxarkoaga	X	X		X	X				X
Rekalde	X	X		X			X		X
San Adrian	X	X	X	X					X
San Ignacio	X	X	X	X	X				X
Saralegi	X	X		X					
Santutxu	X	X		X	X				
Txurdinaga (O.Z. eta Anbul.)	X	X	X	X	X				X
Zorroza	X	X	X	X					X
Zurbaran	X	X	X	X					X

IRISTEKO MODUA ETA HURBIL DAUDEN GARRAIOBIDEAK. OSPITALEA

Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	Iristeko Modua		Hurbil dauden garraioak *						
	A	B	1	2	3	4	5	6	7
	X	X	X	X	X	X	X	X	X

* Bost minututan oinez ibiliz, gutxi gorabehera

A- Oinez, zailtasun handirik gabe

B- Minusbalioitasuna duten pertsonak iristeko modukoa

1- BizkaiBuseko geltokia, hurbil, 2- BilboBuseko geltokia, hurbil, 3- Metroko sarrera, hurbil, 4- Tranbia-geltokia, hurbil, 5- Aldiriko tren-geltokia, hurbil, 6- Autoen aparkalekua, hurbil,, 7- Taxi-geltokia, hurbil

**3. ETENGABEKO ARRETA GUNEAK (EAG).
ORDUTEGIETATIK KANPOKO ARRETA SANITARIOA****OSASUN-ZENTROETAKO****BEGOÑAKO EAG**

Helbidea: Begoñako Ama 32, 48006. Bilbao, Bizkaia
Astelehenetik ostiralera: 17:00etatik a 24:00etara
Asteburuetan eta jai-egunetan: 09:00etatik a 24:00etara

DEUSTUKO EAG

Helbidea: Luis Power 18, 48014. Bilbao, Bizkaia

Etxeko arreta:

17:00 – 08:00 lanegunetan
24 orduz larunbat, igande eta jaiegunetan

Aurrez aurreko arreta:

17:00 – 24:00 lanegunetan
9:00 – 24:00 larunbat, igande eta jaiegunetan

INDAUTXU (AREILZA DK.)KO EAG

Helbidea: Areilza dk. 12, 48011. Bilbao, Bizkaia
Asteburuetan eta jai-egunetan: 09:00etatik 24:00etara

ERREKALDEKO EAG

Helbidea: Larraskituko errepidea 2, 48002. Bilbao, Bizkaia
Astelehenetik ostiralera: 17:00etatik 24:00etara
Asteburuetan eta jai-egunetan: 09:00etatik 24:00etara

ETXEKO ARRETA ETA EMERGENTZIAK: 944 100 000

2012ko apirila
Balioa galduko du ESIren Plan Estrategikoarekin batera 2017an
Urtero berrikusiko da

1. berrikuspena: 2013ko apirila
2. berrikuspena: 2014ko apirila
3. berrikuspena: 2015eko ekaina
4. berrikuspena: 2016eko ekaina
Identifikatzailea jarri
5. berrikuspena: 2017eko ekaina
6. berrikuspena: 2018eko apirila
7. berrikuspena: 2020ko iraila
- 8.berrikuspena:2021ko urria
- 9.berrikuspena:2022ko iraila
10. berrikuspena:2023ko maiatza